

Manuel Vázquez Montalbán

# Carvalho baino askoz gehiago

Manuel Vázquez Montalbánen obra zabalaren hazia jaiotzen ikusi zuten karrketan dago. Bartzelonako Cera eta Botella kaleetan, Padró Plazan eta beste hainbat leku estrategikotan izan da Jon Alonso idazlea, Vázquez Montalbánen arrasto literarioari segika.

**JON ALONSO**

Argazkiak: Debora Tenenbaum

Carrer Botella-n jaiotzen Vázquez Montalbán. El Ravaleko kaleetatik osteratxoa egitea ezinbestekoa da bere garaiko Batzelonatik geratzen dena ezagutzeko.

JOSEP MARIA CASTELLETEK kontaktzen du, Manuel Vázquez Montalbánen *Poesía Completa (Memoria y deseo)* liburuaren hitzaurrean: 1985eko irailean, unibertsitate batean, MVMk *Mende bukaerako metaforak* izeneko hitzaldia eman zuen. Entzuleen artean, ikasleak eta Italiako orduko bi saiakeragile inportanteen eta koak, posmodernitatearen bi teoriko, nolabait esatearren. MVMren hitzaldia argia izan omen zen, eta ikasle gazteek gustura jaso omen zuten. Ordea, hitzaldiaren ondoko solasaldian, bi italiarrek hizlariaren tesiak, nolabait, ezeztatu zituzten; lehenari erantzun omen zion, pixka bat haserretzen hasia, nonbait; baina bigarrenaren diskurtso erasokor, metafisiko eta amaiezinari erantzuteko, isilune baten ondoren, ia entzuten ez zen ahotsaz esan omen zuen: “Begera ezazu, ni poeta bat naiz...”. Ez bide zen izan, bakarrik, inork ulertu ez zuen diskurtsoa indargabetezko estrategia ironikoa, berba-jario hutsalez nekatuta dagoenaren ezohiko aitortpena ere izan omen zen.

Egia da. Vázquez Montalbánen obra ikaragarri luze eta zabal osoaren hazia bere poemetan dago. Gastronomiaren inguruko denak hain maite zituenarentzako batere txarra ez den metafora erabiliz, esan liteke MVMren poesia salda kontzentratu edo salda motz bat bezalakoa dela; hau da, literaturan egin zituen salda guztiak sukalde-hondo, salda horretatik hartutako koilarakada batetik abiatuak lodi ziren. Hala, *Conchita Piquer* poeman lehen aldiz agertzen den “izen atzerritarren itsasontzian etorritako gizona”ren gorabehera guztia *Tatuaje* nobelan garatzen da; *Otoño cuarenta* poemako “adiskide exotikoa, ezkongabea, bakar batentzako ohearen usaina” daukana *El Pianista* nobelako pertsonaietako bat da; *Gauguin* poemako gaiak *Los mares del Sur*

nobelan agertzen dira berriro; *La Rosa de Alejandria* nobela bat da, baina baita *Praga* eta beste hainbat poematako irudi errepikakorra, *ouroboros* bezala... eta segi. Honek koherentzia ikaragarria ematen dio obra osoari. Hemendik abiatuak, eta bere “mende-erakitzalearen borondateari” esker, MVMk utzi zigun obra erraldoiak katedral bat osatzen du, zeinaren lehen harria poesia baita.

Bereziki interesatzen zait hauxe azpimarratzea, oraindik baitaukat gogoan, behin, oso aspaldi, euskal idazle bati aipatu niola MVM izena eta, “a, bai, kazetari hori...” mespretxuzko batekin erantzun zidala. Euskaldunen artean MVMk ez duela aparteko arrakastarik eduki esango nuke; izan ere, gaztelaniaz idazten zuen katalan bat... Eta nazionalitateen auzia historikoki hain eskas bereganatu duen ezkerreko alderdi bateko kide, gainera! Batzuetan zurezko betaurrekoekin begiratzen diogu errealtateari.

Baina MVMk ez du erraz inon eduki. Madrilgo kritikariek gurasokeriaz barkatu zioten bizia, hari eta kantxatik liburukadaka atera zituen arte; PCE eta PSUC alderdien barruan, urte luzeetako militantziak eman beharko lukeen bermearen gainetik, ez ziren askotan berarekin fio. *Asesinato en el Comité Central* idatzi zien, noski. “Nobela bonba bat bezala erori zen –aitortu zuen Gerardo Iglesiasek–, hainbeste non Batzorde Zentralean ahapeka baizik ezin zen hitz egin horri buruz. Eta hitz egiten bazen, belarrira hauxe galdetzeko izaten zen: Manolak egin duen zerrikeriaz jakitun zaude?”. Sergio Beserrek, lehen gaztarotik auzokide eta ikas-kide izandakoak, lehenengoan ez du hitz egin nahi MVMren obraren harrera zailari buruz; pixka bat gehiago zirikatuz gero, ordea, susmatzekoa zena bere gordinean

**Bere poesia salda kontzentratua bezalakoa da; literaturan egin zituen salda guztiak salda horretatik hartutako koilarakada batetik abiatuak lodi ziren**

## Hizkuntzaren auzia

Sergio Beserri galdetu genion zer tokitan uzten duen gaurko Katalunian MVM ia dena gaztelaniaz idatzi izanak. Bere erantzuna biografiaren aldetik etorri zen: “Manolo etorkinen semea zen, hezkuntza guztia gaztelaniaz jaso zuen, katalana kalean bereganatu zuen, eta bereganatze horrek ez zion literaturarako balio. Bere emaztearen giroa, aldiz, guztiz katalanduna zen. Edozein kasutan, katalanez hitz egiteko eta idazteko gauza zen. Hemen badira gaztelaniazko idazle batzuk guztiz katalanaren aurkako joera daukatena. Manolo ez zen horietakoa”. MVMk berak hauxe esan zuen: “Nire harremana katalanarekin, hasieran, bizikidetzakoa zen; hau da, nik

banekien nire auzoan bertan bazeudela beste langile batzuk, katalanez bizi zirenak, horrek dakarren guztiarekin: ohitura desberdinak dituen talde bat, zuk poliki-poliki eskuratzen dituzun beste erreferente sinboliko batzuk dituen jende bat. Integrazioa, gure giroan, erraza zen. Katalanarekiko distantzia, lehen aldiz, katalanezko literatura kultua ezagutu nuenean esperimintatu nuen. Ez al nintzen katalanaren aurkako armada linguistikoko baten partaide? Horrek kontzientzia txarra eragiten du. Baina gure gurasoak lan bila etorri ziren, eta hori zilegi da. Horrik aurrera, hizkuntzari buruz, nik ahal izan dudana jarrera irekiena hartu dut”.

## “Manolo oso eskuzabala zen”

SANT CUGATEKO TABERNA batean bildu ginen Sergio Beserrekin. Amultsutasunez betetako harrera egin zigun. Beser Espainiako Literatura Katedraduna izan da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Gaur egun erretiratuta dago. Leopoldo Alas *Clarín* idazleari buruzko aditua; Manolo Vázquez Montalbánen auzokidea, ikaskidea, betiko laguna. “Bagenekien non zegoen iparra, non hegoa, utopiak, ilusioak eta beldurrak partekatu genituen”. Morellan jaioa, baina Bartzelonan bizi dena zazpi urte zituenetik, eta F. C. Barcelonako 5.400 zenbakiko sozia. “Manolo ere gurekin etortzen zen futbolera; zalea zen, baina berotzen ez den horietakoa”. San Cugatzen sortu den Memorial Manuel Vázquez Montalbán taldeko kidea da. “Manolok oso harreman estua eduki zuen Sant Cugatekin. Deitzen genionean, edozertarako, beti prest egoten zen hona etortzeko; hainbeste non, hil

zenez, hemengo askorentzat hutsunea ikaragarria izan zen. Serio itxura zeukan, baina oso lotsatia zelako; aldi berean oso eskuzabala, sinesten edo maite zituenen alde; esaterako, NATOren aurkako kanpainan, presidente izateko ari den batek baino ekitaldi gehiago egin zuen”. Toki guztietan izateko dohaina, nonbait. “Bai, zeukan lanahalmena ikaragarria zen. Nik beti esaten nuen, horrelakoetan, ematen zuela beste Manolo bat gelditu zela etxean, lanean”. MVMk aipatzen du Sergio Beser, beste batzuen artean, bere poemario bateko esker ematean, “ni poesia idazten segitzeko arduradun nagusienetako bat” bezala. “Joaquim Marco, beste adiskide bat, poeta bera ere, Aurora kalean bizi zen; ni Tigre kalean, eta Manolo Botella kalean; denok V. Barrutian. Manolo unibertsitatean sartu zenez, gu bosgarren urtean geunden. Elkarrekin joaten ginen klasera”. MVMk

lagun hauei erakutsi omen zizkien bere lehen idazlanak, eta hauek adoretu omen zuten, inoren isuri emozional adolezentea baino zerbait gehiago zirela esanda. Sergio Beser da, Enric Fusterrekin batera –hau ere haragi-hezurrekoa– Carvalhorekin elkartzen dena *Los mares del Sur* nobelan, afari antologiko batean, ikerketarako garrantzizkoa den bertso baten enigma detektibeari argitzen diona. “Aurkeztu zenez, Sant Jordi egunean, berarekin joateko eskatu zidan, liburuak elkarrekin izenpeztzera”. Irri egin du pasadizoaren xehetasunak gogoratu dituenean. Gero serio jarri da berriro, “Manoloren poesiaren gai nagusia denboraren ihesak sorturiko nostalgia da”. Eta gehien gustatzen zaion liburua? “Bi aipatuko dizkizut, *El estrangulador* eta *Bolero, o sobre la recuperación de los barrios históricos en las ciudades con vocación postmoderna*”.



azaltzen du: “Bekaitza... ikusi besterik ez dago, Europa osoan harrera hobea egin diotela, eta askoz sari gehiago jaso dituela. Bere obrari buruzko libururik interesgarriena ere frantses batek egin zuen, Georges Tyrasek; Camilleri siziliarrak *Montalbano* sortu zuen, Manoloren eraginez; Izzok, 2000 urtean 55 urterekin hil zen idazle komunista frantsesak, hiru nobela poliziako oso on idatzitako-

**Jon Alonso**  
(eskuinean) **Sergio**  
**Beserrekin**  
solasaldian.

ak, *Montale*”. Eta harrera zaila, erlatiboki. Eliteen aldetik, zaila. Irakurleok, irakurle askok txalo jotzen genuen zerbait ateratzen zuten bakoitzean. Horixe izan da bere obrari egin diogun ekarpena; eta ekarpen horrek, ehun milaka irakurlerena zenez, aho asko estalaraziko zuen, segurutik.

Oroimena: “Thes egiten zuen armadaren atzeko aldean jaio nintzen, airea eta ura mai-



## MVMren obra

Ikaragarri zabala da. Georges Tyras frantziarrak lau aldi bereizten ditu: lehen aldia, 1963. urteaz geroztik (*Manifiesto subnormal, Una educación sentimental*), batzuek "idazketa subnormala" deitzen dutenaren garaia da; bigarrenak, 1974. urtetik aurrera, Carvalhoren zikloaren hasiera dakar (*Tatuaje*); hirugarrenean, 1985etik, "oroimenaren nobelen" zikloa hasten da (*El pianista, Galindez*); laugarrena, 90etik aurrera, munduko errealitateari egiten dion hurbilpenaren aldia litzateke (*Y Dios entró en la Habana, Marcos: el señor de los espejos*). Hori guztia obra poetikoa eta kazetaritza-lanak, saiakerak, gastronomiari buruzkoak, gidoigintza, eta sailkapen zaileko beste hainbat ahaztu gabe.

leguan eskatu nizkizuen sobran zenituzten auzoetan". MVM 39an jaio zen, auzo hori El Raval da. "Izena ere aldatu diote –azaldu digu Beserrek–, demokraziarekin ezarririkoa da. Gu haurrak ginenean Distrito quinto zen". Gerra galdu zutenen auzoa, lumpena bizi zen auzoa, txinoa. Bertan bizi ziren MVM, Beser, Joaquim Marco, hau ere poeta eta adiskidea. "Manolok ez zuen sekula ahaztu bere jatorri apala. Horrek betiko markatu zuen", dio Beserrek. Baina norberaren zorientasun beteko unea, norberaren "Rosebud" a –Wellesen Kane hartan bezala–, haurtzaroan dago, kale horietan –Cera, Hospital,

**Irudian, Casa Leopoldo, idazlearen inimizazio gastronomiko erabakigarria. Umea zela, aitak bazkaltzera eraman zuen bertara.**

Tigre, Padró plaza...– dago. MVMk berak hola kontatu zuen: "Goiz eguzkitsu batean da, Bartzelonan, berrogei urteetako hamarkadan. Ez dago kotxerik, mundu guztia kalean dabil. Botella kalean, nire etxearen aurrean, okindegi bat zegoen. Ogi normala nahiko txarra zen, jendeak "ogi beltza" esaten ziona, irin-nahaste batez eginda zelako, baina ogi bero hura... Gogoan dut nire amak kalea zeharkatu zuela ogi batez eta oliba beltzezko kukurutxo batez, ogi beroaren zati bat moztu eta olibekin eman zidan. Zorion

beteko une bat aurkitzen saiatu naizen bakoitzean, une hori etortzen zait burura...". Toki bat, nondik ez den itzuli nahi, alegia; bere poesiaren beste ideia errepikakor bat. Karrika horietatik osteratxoa egitea ezinbestekoa da MVMren Bartzelonatik geratzen dena ezagutu nahi bada. Padró plaza, Cera kalea, Botella kalea, *El Pianista* nobelako gertalekuak, egun Afrikatik eta Asiatik etorritako jendeaz mukurru daude. Haien dira gaurko jaun eta jabeak, paisaia linguistikoa ere nabarmen uzten duenez. Baina auzoaren aldaketa lehenagotik dator, 92tik, Olinpiadak zirela eta Udalak hondeamakina martxan



Carvalhoren liburuetan asko aipatzen da Las Ramblas-eko La Boqueria merkatua.

jarri zuenetik, “hiriaren iztondoak” zirenak ezabatzeko. Ez dakit nik gauza askorik “bokazio posmodernoan duten hirietako auzo historikoen berreskuratzeari buruz”, baina beharbada ironia hobeki ulertzen da norberak, metro koadro gutxiko azaleran, prostituta, *junkieak*, teherandarrak, orube hutsak eta eliza eraberrituak aurkitzen dituenean, denak nahasian. Eta auzoan Can Lluís, eta nola ez, Casa Leopoldo, non MVMren iniazio gastronomiko erabakigarria gertatu baitzen, bere aitak –“jateak zikinkeriak emateagatik jendea lapurtu egiten zioten tokiak zirela” uste omen zuenak–, behin, umea zela, bazkaltzera eramán zuelako. Oroimena: kale horietan, batek suma dezake, bere poemetako “nik bakarrik gogoratzen ditudan hildakoak” daude. Kale horietan konplutuko zen maxima erabatekoa: zorrak ordaintzea eta norberaren hildakoak lurperatzea. Zeren, “bizitza ez da ibaia, ezta estolda ere, frustrazioen, ahanzturaren eta hilketen gorpuen gaineko borondateen segida dialektikoa baizik”.

Desioa: desio maitasunezkoa, desio erotikoa, neskata urdinak, neskata urrezkoak, anbarezko damak, “betikoa dela agintzen duen bidaia, beti itzultzen den arren”. Jakiteko desioa, mugaraino jakiteko desioa: “Inguratzen duen guztiaren izena, egin

## Pentsamendu kritikoa

✓ “Nire iritzi, eskuinaren egiazko garaipena ez da izan corpus ideologiko bat saltzea, oroitze eta berriz sortze gaitasuna eraztea baizik”.

✓ “Komunikabideek, ados jartze beharrik izan gabe ere, ‘polizia mediatikoa’ sortu dute: imajinario eta erreferente sozial jakin batzuk aldeztu dituzte, eta lerro horretan sartzen ez den guztia ‘desidentifikatu’ egiten da. Desidentifikatzeak esan nahi du deus ez, inor ez zaren grabitaterik gabeko galaxia batean sartzea. Sistemaren parte zara, hor zaude, baina ez zara inor. Gizarteak eta sistemak eskatzen dituen parametro ekonomiko edo ideologiketatik kanpo jartzen bazara, baztertuta zaude, kaletik kotxe-haizetakoak garbitzen ibili behar ez baduzu ere. Uste dut identitate-galera hau botereak toki guztietan erabiltzen duen errepresio-modu eraginkorrenetakoa dela”.

✓ “Inork ez dauka gizarte berri baterako diseinua, eta ez naiz oso kritikoa utzikierazko jarrerekin. Kritikoa jartzen naiz, ordea, utzikieria izatetik, zerbitzu intelektualak ematearen truke boterean parte hartze jarrera zinikoa izatera pasatzen denean”.

## Memorial Manuel Vázquez Montalbán – San Cugat

MVMren oroitzapena bizirik iraun dadin sortu zen, eta idazlearen bizitzaren eta obraren helburuak gogoan edukitzeko, urtean zehar egiten diren jardunen bidez: hitzaldiak, afari-solasaldiak eta sariak, besteak beste. MVMk utzitako ondare intelektual eta morala interesgarria iruditzen zaien mota guztietako pertsonak osatzen dute. Alderdikeriatik edo bestelako interesetatik aparte, Memorialak gogoeta eta elkarrizketa sustatu nahi ditu, baita bizitzeko gustua ere. Beren webgunea: [www.stcugat.net/MVM/](http://www.stcugat.net/MVM/)

duten guztiaren asmoa, absolutuaren ahutzetan uzten duten amildegiak ikasten saiatu diren gizakien egoera perfektua ihesa baita”, edo bestela esanda, “gauetz berandu arte irakurri, eta neguan hegora bidaia-tzea”. Hegoa, ihes perfektuaren metafora. Historikoa izateari uzteko desioa, berriz errugabea izan ahal izateko. Sintesi erabatekoa egiteko desioa. Nola ulertu, bestela, T.S. Eliot poeta angloamerikarra bereganatzeko modua, haren eragina, bere poesigintzan txertatzeko modua? Armada derrotatuaren atzealdean jaio zen, aita kartzelan eduki zuen, fededuna ez zen, herrialde azpigaratu baten diktaduran hezitako langile etorkinen semeak bat egiten du, lehen

## Politika literaturan

MVM eredu da politika ere literatur gaia izan daitekeela uste duenarentzat. *Autobiografía del General Franco* edo *Asesinato en el Comité Central* dira bi adibide esanguratsu. Azken honetan, PCEko idazkari nagusia hiltzen dute Batzorde Zentralaren bilera batean; argiak itzaltzen dira, eta idazkari nagusiak paparrean daraman intsignia baten distirak –hasieran zigarroaren punta dela uste du Carvalhok– gidatzen du hiltzailearen labana biktimaren bihotzeraino. Trantsizioa zen, eta MVM PCE berritu beharraz ari zen. Carrillok ez zuen sekula ezkutatu liburua ez zitzaioala batere gustatu: “Argitaratu zenean, labankada bat bezala jaso nuen. Fikzioan idazkari nagusi hark fisikoki jasotzen zuena, politikoki nire aurka zihoan”. Jordi Ribók, PSUCeko orduko idazkariak, anekdota bat kontatzen du honi buruz; liburua argitaratu eta gero, MVM PSUCeko Batzorde Exekutibokoa zela, bilera batean benetan itzali zen argia, eta bertan zegoen Carrillo benetan erretzen ari zen. “Geldi, Manolo”, esan omen zuen.

## Bi hitz posmodernismoari buruz

Euskal Herrian, posmodernismoak bi erantzun-klase sorrarazi ditu: bata arbuio erabatekoa da, eta bestea axaleko bereganatze bat, ustez umoretsua, friboloa batzuetan. “Edozein ereduk balio du, baldin eta zure ekarpena bakan egiten duen elementuren bat sartzen baduzu. Horixe litzateke arteei aplikatutako posmodernidatearen irakurketa positiboa; aldiz, ahistorizismoaren ikuspegitik, proposamen posmodernismoaren guztiz aurka nago”. Ez dakit, jendeak, hemen, asko omen daki, ez omen du horrelako gogoetarik behar jarrera bat hartzeko. Ni bezalako ergeloi, aldiz, laguntzen digute errealitatea ulertzen.

aipatutako bizi-zirkunstantzia guztiei dago-kienez, antipodetan zegoen poetarekin, “irudi hautsien multzo bat, zeinen gainera eguzkia abailtzen baita” baizik ez delako eratzen, agian. Eliotekikoak tesi bat pres-tatzeko eman behar du, koartada paradoxiko, edo ironikoa, izan litekeelakoa erabat baztertu gabe.

Oroimena eta desioa, baina baita nolabaiteko zantzu profetikoak ere; hasteko, 2003ko urrian, Bangkokeko aireportuan gertatuko zen bere heriotzaren igarlea: “Postariak *Bangkok Post* ekarri du ... Asiako bazter batean inoreztatua, bizia edo herioa zain daukan atzerritarra”, idatzi zuen 1990ean; edo, Sergio Beserrek ohartarazi zidan bezala, *Pero el viajero que buye* 90eko poema-liburuan dagoen beste hau: “(...) Zorionekoa, XXI. mendea /bost mila milioik posatuko duzue/Historia Bukaerako/videotype kolektiboan (...) baina makinaren jabeak/erretinan edukiko zaituzte/faktura pasatuko du/ eta ezin izango diozue ordaindu (...) eta mendearen gaua iritsi baino lehen/askatasunaren eta klase-borrokaren profetak/beharko dituzue (...)”. Sant Cugat-eko hilean behineko bilera horietako batean, poema hau aukeratu omen zuten oraingo krisi ekonomikoaren gaia jorratzen ari zirela, eztabaida abiatzeko.

Rambla ondoko Boadasen *dry martini* pare bat hartu eta topa egin dugu, dena arrastaka, errukirik gabe, aurretik eramaten duen denborari desafio eginez, galaxia txarrenen atectan abandonatuko gaituzten egunaren zain. ■

[www.argia.com](http://www.argia.com)  
helbidean, bidaiaren egunerokoa.